

PANPA BELARRA

Cortaderia selloana

Jatorriz, Hego Amerikako landare bat da.

Gaur egun gure lurraldean gehien zabaldu diren **Espezie Exotiko Inbaditzaileetako** bat da.

Hazien bidez hedatzen da. Motots bakoitzak milaka **hazi** ematen ditu, eta **haizeak, urak** eta **ibilgailuek** hazi hauek garraiatzen dituzte distantzia luzeetara.



Bizkaiko Foru Aldundiak, eta Uribe bost udalekin batera: Barrika, Plentzia, Gorliz, Gatika y Urduliz, udalerrri hauetan espezie honen presentzia gutxitzeko programa bat jarri dute martxan.

Helburua biodibertsitate eta paisaian **kalteak ekiditzea** da, eta alde babestuetan espezie honen **kolonizazioa galaraztea**.

Horretarako administrazio hauek panpa belarra **eremu publikoetatik kentzeaz arduratuko dira** (parkeak, ibaiertzak, padurak, mendi publikoak, errepideak, etab.), eta gai honi buruzko aholkularitza eskeiniko diote behar duenari.



Ezagutu ezazu legedia:

Panpa belarra (Cortaderia selloana) espezie inbaditzaileen katalogoan jasotako espezie bat da (630/2013 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa).

Honek esan nahi du:

- Landare honen aleak edukitzea, garraiatzea, berarekin tratutan jardutea edo salerostea debekatuta dagoela.
- Agintari eskudunek beraien ordezkariak lurzailentara sartzen uzteko eska diezaiekete **lurzailen jabeak**, espezie inbaditzaileen presentzia egiaztatzeko, eta behar izanez gero, beraien kontrolerako neurri egokiak hartzeko.
- Lege honetan jasotako debekuak eta mugak ez betetzeak **zigorrak** ekar ditzake (42/2007 Legea, abenduaren 13koa).

Zer egin dezakezu zuk?

Lursailentako jabeek beraien jabetzak espezie inbaditzaile honetaz garbi mantentzeko obligazioa daukate.

Hiritar bezala:

- **Informa** zaitetz eta lagundu arazoa ezagutzera ematen.
- **Parte hartu** ingurumen erakundeek landare inbaditzaileak kentzeko antolatzen dituzten ekintzetan

Lursail baten jabe partikular bezala:

- Zaindu zure jabetza eta **azkar jokatu** espezie honen alerik aurkitzen baduzu. Isolatutako landareak modu egokian atera daitezke dokumentu honetan aurkituko dituzun aholkuak jarraituz.

Lursail baten jabe den enpresa bezala:

- Enpresek ere beraien jabetzako lursailak panpa belarrez garbi mantentzeko betebeharra daukate.

PANPA BELAR LANDAREAK KENTZEA OSO ERRAZA DA

1. Jantzi itzazu eskularruak; ostoeak moztu egiten dute eta
2. Landare gazteak eskuz atera daitezke. Aprobetxatu lurra bustita dagoenean, edo ureztatu lana hasi aurretik landarea errezago ateratzeko.
3. Tamaina erdiko landareak ateratzeko erabili atxur bat.
4. Moztu mototsak agertu bezain laster, eta gorde itzazu poltsa itxietan haziak ez sakabanatzeko. Ez ezazu landarea astindu.
5. Atxurrarekin eta pazientzia apur batekin sustraiak lurpetik atera, lurra sustrai zatirik ez uzteko arretaz. Landareak pisu eta tamaina handikoak izan daitezke. Aukera on bat sustrai-lurra lursaileen bertan buelta emanda uztea da (sustraiak gora begira), guztiz lehortu arte.
6. Jabedun partikular bat bazara, abisatu zure udalari aleak handiegiak badira. Aurrerantzean lursaila garbi mantentzeko konpromezua nahikoa berme izango da.
7. Zaindu tokia landare inbaditzaile berritoki atera ez dadin.



HARREMANETAN JARTZEKO

➤ **Barrika, Gorliz, Plentzia, Gatika eta Urdulizko Udalak.**

